4. Eratxikipenak, eratxikipena hari egin zaioneko Autonomia-Elkarteko Jaurlaritza-Sail edo Erakundegorenmailako Izaikiari emango dio Lege honek beste Ihardutze-Sailen batzuentzat gorde gabeko ogasun eta eskubideen eraentzarako eta arduralaritzarako ahalmena.

5. Ogasun mugiezinak, zioa dena dela, jabegoa kendutakoak bere lehengo jabeei itzultzea barne, bere zertarakotik askatzeko, eta balioz 20 miloe pesetatatik gora dutenei jakineko zertarakoa jartzeko, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Herriogasun eta Diruegitamu-Batzordeari aditzera eman beharko zaio.

*25garren Atala*

Herri-jaurgopeko baten muga-zehaztapena egin dedinean, gaindikako lurrak Autonomia-Elkartearen norbanako-jaurgopekotan sartuko dira.

*26garren Atala*

1. Jaurlaritzako Sailek, bere agintepeko zerbitzuen eraentzarako Euskadiren Ondareko ogasun eta eskubideak eratxiki dakizkieneko eskea egin ahal izango diote Ekonomia eta Herriogasun-Sailari.

2. Ihardutze-Sail Burujabeek eta Norbanakoalorreko Legepeko Herri-Izaikiek, Arduralaritzaz haien menpeko izan daitezeneko Jaurlaritza-Sailen bidez, bere berarizko xedetarako Euskadiren Ondareko ogasun eta eskubideak eratxiki dakizkieneko eskea egin ahal izango diote Ekonomia eta Herriogasun-Sailari.

3. Hala egokituz gero, eratxikipena egin baino lehen herri-jaurgoperatzea egingo da. Gainera, Ihardutze-Sail Burujabeak edo norbanako-alorreko legepeko Herri-Izaikiak izan daitezenean, ogasun edo eskubideen zertarakoa berariz zehaztuko da.

4. Ogasun eta eskubideei zertarakoa jartzea eta hoien eratxikipena, Jaurlaritzak Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren saloz emandako Dekretoz araupetuko da.

**Sección 4.ª–Afectación y Desafectación-Cambio de destino**

*Artículo 24*

1. Es competencia del Departamento de Economía y Hacienda, salvo lo previsto expresamente en esta Ley, la afectación de bienes al uso o servicio público y su desafectación, así como las adscripciones, desadscripciones y cambios de destino entre Departamentos, Organismos Autónomos y Entes Públicos de derecho privado.

El Gobierno, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, podrá afectar por Decreto al uso o servicio público los bienes inmuebles individualizados propiedad de la Comunidad Autónoma de Euskadi que se encuentren comprendidos en planes, proyectos o programas aprobados por aquél.

2. El ejercicio de la competencia a que se refiere el apartado anterior requerirá previo informe de los Departamentos interesados o de los que dependan administrativamente los Organismos o Entes, resolviéndose las discrepancias de acuerdo con lo previsto en el artículo 30 de esta Ley.

3. La afectación producirá la integración del bien o derecho en el Dominio Público.

No obstante lo dispuesto en el artículo 38.1 de esta Ley, tendrán también la condición de bienes de dominio público, sin necesidad de ningún acto formal, los bienes destinados al uso o servicio público que adquiera la Comunidad Autónoma de Euskadi en virtud de usucapión, y sin perjuicio de los derechos adquiridos sobre ellos por terceras personas, al amparo de normas de derecho privado.

4. La adscripción conferirá al Departamento o al Ente Institucional de la Comunidad Autónoma a quien se haya efectuado las facultades de gestión y administración sobre los bienes y derechos no reservados a otros órganos por la presente Ley.

5. La desafectación de los bienes inmuebles, cualquiera que sea su causa, incluida la reversión de los expropiados, y la afectación de aquellos que tengan un valor superior a 20 millones de pesetas, deberá ser notificada a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco.

*Artículo 25*

En los casos de deslinde del dominio público, los terrenos sobrantes se integrarán en el dominio privado de la Comunidad Autónoma.

*Artículo 26*

1. Los Departamentos del Gobierno podrán recabar del de Economía y Hacienda la adscripción de bienes y derechos del Patrimonio de Euskadi para la gestión de los servicios de su competencia.

2. Los Organismos Autónomos y los Entes Públicos de derecho privado podrán solicitar, a través de los Departamentos de los que dependan administrativamente, del de Economía y Hacienda, la adscripción de bienes y derechos del Patrimonio de Euzkadi, para sus finalidades específicas.

3. El acto de adscripción será precedido en su caso por el de afectación al dominio público. Además, en el supuesto de Organismos Autónomos o Entes Públicos de derecho privado, expresará concretamente los fines a los que se destina el bien o derecho.

4. Por Decreto del Gobierno, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, se regulará el procedimiento de afectación y adscripción de los bienes y derechos.

*27garren Atala*

1. Jaurlaritzako Sail bati eratxikitako ogasun edo eskubideak orotariko baliapideentzat edo herri-zerbitzuentzat iadanik beharrezko ez izatea gerta dedinean, Sail horrek eratxikipen hori hautsi dedinaren saloa egin beharko dio, berehala, Ekonomia eta Herriogasun-Sailari.

2. Ihardutze-Sail Burujabeek eta Norbanakoalorreko Legepeko Herri-Izaikiek ere horixe bera egin beharko dute, arduralaritzaz haien menpeko direneko Jaurlaritza-Sailen bidez, heurei eratxikitako ogasun eta eskubideen eratxikipena eginzenean jarri zitzaien helburu zehatzerako erabiltzetik kendu ditzatenean.

3. Ekonomia eta Herriogasun-Sailak Ondare-Artezkaritzaren bidez eratxikipena hautsi edo hala dagokionetan zertarakoa kendu, eta ogasun edo eskubidea Euskadiko Norbanako-Jaurgopekoetan sartuko da.

4. Lege honen 48.1 atalean araupetzen den Jaurlaritza-Sailei eratxikitako gauzazko ogasun mugikorren salmenta aurreko zatietan esandakotik kanpo gelditzen da, eta bai Lege honetakoxe 29.2 atalean Ihardutze-Sail Burujabeei eta Norbanako-alorreko Legepeko Herri-Izaikiei horretarako baimena ematen zaienekoa ere.

Hoietan, saltzeko erabakiak berebaitan izango du ogasun eta eskubideen eratxikipena haustea, eta hala dagokionean zertarakoa kentzea.

5. Erratxikipena haustea eta zertarakoa kentzea berebaitan izango dituen nahitaezko jabego-kentzez hartutako ogasun eta eskubideen itzulpena, horretarako berarizko araupideei atxikiz egingo da.

*28garren Atala*

Zertarakoa kendu zaien ogasunak Autonomia-Elkartearen norbanako-jaurgopekoetan sartzea ez da Ekonomia eta Herriogasun-Saila ogasun hoietzaz behar bezala jabetu arte egindakotzat joko, eta hori egin ez dedin artean ogasun hoiek herrijaurgopeko izaten jarraituko dute.

*29garren Atala*

1. Ihardutze-Sail Burujabeek eta Norbanakoalorreko Legepeko Herri-Izaikiek berenez erosi eta Lege honen laugarren atalaren gai diren eta haien helburuak lortzeko artez beharrezko izan ez daitezen ogasunak, Autonomia-Elkartearen Norbanako-Jaurgopekoetan sartuko dira, hala behar izanez gero jarrita zeukaten zertarakoa kendu ondoren.

2. Honako hauek aurreko zatian agindutakotik kanpo gelditzen dira eta, beraz, Ihardutze-Sail Burujabeek eta Norbanako-alorreko Legepeko herri-Izaikiek inorentzakotu egin ahal izango dituzte: Hoiek erositakoak izan eta bere dituzten egitekoak egiteratuz berriz agizko tratubideratzen dituzten ogasunak, eta bai jaurpide dituzten aginduak beteaz sortarazi beharreko emendio-baltzuen emankortasuna bermatzeko erositakoak, eta banaka hogeita bost mila pesetatik beherako balioa izan dezaten gauzazko ogasun mugikorrak ere.

Horrelakotan, saltzeko erabakiak ogasunei bere zartarakoa kentzea barne daramala joko da.

*30garren Atala*

Ihardutze-Sail Burujabeak, Norbanako-alorreko Legepeko Herri-Izaikiak edo Jaurlaritzako Sailak Euskadiren Ondareko ogasun bati edo batzuei zertarakoa jartzeari edo kentzeari, hoien eratxikipenari, eratxikipena hausteari edo zertarakoa aldatzeari buruz artean edo Ekonomia eta Herriogasun-

*Artículo 27*

1. Cuando los bienes y derechos adscritos a un Departamento dejaren de ser precisos al uso general o a los servicios públicos, aquél vendrá obligado a proponer su inmediata desadscripción al de Economía y Hacienda.

2. Igual obligación tendrán los Organismos Autónomos y los Entes Públicos de derecho privado, a través de los Departamentos de que administrativamente dependan, cuando los bienes y derechos a ellos adscritos dejen de ser utilizados para el fin concreto previsto en la adscripción.

3. El Departamento de Economía y Hacienda, a través de la Dirección de Patrimonio, procederá a la desadscripción y, en su caso, a la desafectación, integrando el bien o derecho en el Dominio Privado de Euskadi.

4. Se exceptúa de lo previsto en los apartados anteriores la enajenación de bienes muebles corporales adscritos a los Departamentos, regulada en el artículo 48.1, así como la autorizada a los Organismos Autónomos y Entes Públicos de derecho privado en el artículo 29.2, ambos de esta Ley.

En estos supuestos, el acuerdo de enajenación llevará consigo las desadscripción y desafectación, en su caso, de los bienes y derechos.

5. La reversión de los bienes y derechos expropiados, que llevará implícita la desafectación y desadscripción, se regulará por sus normas específicas.

*Artículo 28*

La incorporación al dominio privado de la Comunidad Autónoma de los bienes desafectados no se entenderá efectuada hasta la recepción formal por el Departamento de Economía y Hacienda de los bienes de que se trate y, en tanto la misma no tenga lugar, seguirán teniendo aquéllos el carácter de dominio público.

*Artículo 29*

1. Los bienes adquiridos con sus propios medios por los Organismos Autónomos y los Entes Públicos de derecho privado a que se refiere el artículo cuarto de esta Ley, que no sean necesarios para el cumplimiento directo de sus fines, se incorporarán al dominio privado de la Comunidad Autónoma, previa desafectación en su caso.

2. Se exceptúa de lo dispuesto en el apartado anterior y, en consecuencia, podrán ser enajenados por los Organismos Autónomos y Entes Públicos de derecho privado, los bienes adquiridos por los mismos que devuelvan al tráfico jurídico en el ejercicio de sus funciones privativas, así como los adquiridos para garantizar la rentabilidad de las reservas que tengan que constituir en cumplimiento de las disposiciones por las que se rijan, y los bienes muebles corporales de un valor unitario inferior a veinticinco mil pesetas.

En estos supuestos, la desafectación de los bienes se entenderá implícita en el acuerdo de enajenación.

*Artículo 30*

Cuando los Organismos Autónomos, Entes Públicos de derecho privado, o Departamentos, discrepen entre sí, o con el Departamento de Economía y Hacienda, acerca de la afectación, desafectación, adscripción, desadscripción o cambio de destino de un bien o bienes determinados del Patrimonio

-Sailarekin bat etorri ez daitezenean, ebazpena Jaurlaritzak egingo du, Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren saloz, doakien Sailek edo Ihardutze-Sail edo Izaikiek hoiei atxikita daudenekoek bere erizpenak eman ondoren.

*31garren Atala*

1. Lege honen laugarren Atalean aipatutako Izaikietakoren bati edozergatik Euskadiren Ondarearen Zerrenda Nagusian nahitaez sartu beharreko ogasun edo eskubideren bat eman eta emate horretan Ekonomia eta Herriogasun-Sailak eskuhartu ez badu, hori Ondare-Artezkaritzari berehala jakinaraziko zaio.

Horixe bera egin beharko da Ekonomia eta Herriogasun--Sailak eskuhartzeke egindako zertarakokentze, eratxikipen--hauste edo inoretzakotzeetan ere.

2. Halaber, Euskadiren Ondareko ogasun eta eskubideren bat gai dezan Epailaritza nahiz Arduralaritza-bidetikako ezein jazarpen ere, esandako Artezkaritza horri jakinaraziko zaio, legez egin beharreko beste adierazpen batzuen kaltetan gabe.

*32garren Atala*

1. Ekonomia eta Herriogasun-Sailak, Jaurlaritzako Sailek, Ihardutze-Sail Burujabeek, Norbanako-alorreko Legepeko Herri-Izaikiek, Erakundeek eta herri nahiz norbanako--alorreko legepeko nortasundunek hoietzaz baliatzeko ezein modutan eman zaizkien Euskadiren Ondareko ogasun eta eskubideak nola darabiltzatenaren ikuskaketa egiteko gaitasuna du.

2. Bere eskubideaz baliatuz, Ekonomia eta Herriogasun--Sailak honako hauek egin ahal izango ditu:

a) Ogasun eta eskubide hoien erabilkerari buruz interesgarri eritzitako xehapen guztiak eskatzea.

b) Ogasun eta eskubideen eratxikipena hausteko eta hoiei bere zertarakoa kentzeko arioa, eta hala egokituz gero horretzazko erabakia hartzea.

3. Ekonomia eta Herriogasun-Sailak bere ordezkariak izango ditu Atal honen lehenengo zatian aipatutako ihardutze-sail eta erakunde guztietan, zati horretan ohartemandakoetarako.

**5garren Saila.—Erantzunbeharrak eta Zigorrak**

*33garren Atala*

Lege honetan aipatzen diren ogasun edo eskubideen ardura izan dezaten norbanakoak edo legezko nortasundunak hoiek, bakoitzean behar dedinaren arauera, zaintzera, hoiei iraunaraztera eta hoiek arrazoiz erabiltzera, eta hoiek agian egin ditzaketen oker eta kalteez Euskadiko Autonomia--Elkarteko Arduralaritzaren aurrean erantzun behar izatera behartuta daude.

*34garren Atala*

1. Maltzurkeriaz nahiz axolagabekeriaz Autonomia--Elkarteko herri nahiz norbanako-jaurgopeko ogasunetan kalteak egin edo hoiek nolanahi ebatsi ditzan nornahiri, egindako kaltearen bi halakoaren isuna jarriko zaio.

2. Aurreko zatian esandako horrek, edozein modutan, ogasun hoiekiko jabegoa, eraentza edo arduralaritza bere gain izango balu, isuna egindako kalteen hiru halakoa izango da.

de Euzkadi, la resolución correspondiente será competencia del Gobierno a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, previo informe de los Departamentos interesados o a los que estén adscritos los Organismos o Entes.

*Artículo 31*

1. Si por cualquier título se atribuyera a algún Ente de los mencionados en el artículo cuarto de esta Ley algún bien o derecho de obligada inclusión en el Inventario General del Patrimonio de Euskadi, y el Departamento de Economía y Hacienda no hubiera intervenido en la atribución, se dará inmediato conocimiento de ella a la Dirección de Patrimonio.

Regirá la misma norma para los supuestos de desafectación, desadscripción o enajenación en que no haya intervenido el Departamento de Economía y Hacienda.

2. De igual modo, se dará traslado a la expresada Dirección de toda reclamación judicial o administrativa que tenga por objeto bienes y derechos del Patrimonio de Euskadi, sin perjuicio de otras comunicaciones que procedan legalmente.

*Artículo 32*

1. El Departamento de Economía y Hacienda es competente para investigar la utilización por los Departamentos, Organismos Autónomos, Entes Públicos de derecho privado, Corporaciones y personas de derecho público o privado, de los bienes y derechos del Patrimonio de Euskadi cuyo uso tengan atribuido por cualquier título.

2. En ejercicio de sus facultades, el Departamento de Economía y Hacienda podrá:

a) Solicitar cuantos datos juzgue de interés sobre la utilización de bienes y derechos.

b) Promover y, en su caso decidir, la desadscripción y desafectación de los bienes y derechos.

3. El Departamento de Economía y Hacienda estará representado en todos los Organos y Entidades mencionadas en el apartado primero de este artículo, a los efectos previstos en él.

**Sección 5.ª—Responsabilidades y Sanciones**

*Artículo 33*

Toda persona natural o jurídica que tenga a su cargo bienes o derechos a que se refiere esta Ley está obligada a su custodia, conservación y explotación racional, según los casos, y a responder ante la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi de los daños y perjuicios por ella eventualmente causados.

*Artículo 34*

1. A toda persona que, por dolo o negligencia, cause daños en bienes de dominio público o privado de la Comunidad Autónoma o los usurpe de cualquier forma, se le impondrá multa por un importe doble al de los daños producidos.

2. Si la persona a que se refiere el apartado anterior tuviere encomendada, por cualquier título, la posesión, gestión o administración de dichos bienes, la multa será del triple de los daños causados.

3. Horrelakoetan, Autonomia-Elkarteko Arduralaritzari, horren Ihardutze-Sail Burujabeei, Norbanako-alorreko Lege-peko Herri-Izaikiei eta Herri-Baltzuei herrilanaritzazko, lanezko, lanaritzazko edo zerbitzuzko harremanez atxikia egon, eta Lege honen gai diren ogasun edo eskubideen eraentza bere gain izan dezatenei, egindako kalteen lau hala-koaren isuna jarriko zaie, herrilanarigoari buruzko legepi-deen arauera bidezko izan daitezen gainontzeko zigorren kal-tetan gabe.

4. Zigor hoietzaz gainera, kalte-egile edo ebasleek kalte--saria ordaindu edo ebatsitakoa itzuli egin beharko dute.

*35garren Atala*

Lege honen hamabigarren atalak jartzen duen laguntza eman beharra ez bete izanagatikako zigorra herrilanaria bada hamar mila eta berrehun eta berrogeita hamar mila peseten arteko isuna izango da, eta herritar soila baldin bada, hamar mila eta ehun milaren artekoa.

*36garren Atala*

Kalteen zenbatekoa zehaztea, zigorra jartzea eta erantzun-beharrak eskatzea arduralaritza-bidetatik egingo da, doakio-nari entzunaz dagozkion zehaztapideak egin ondoren.

*37garren Atala*

Aurreko ataletan esandako egintza hoiek legehauspen edo hutsegite izan daitezkeenean, Ekonomia eta Herriogasun--Sailak Zigor-Epailaritzari jakinaraziko dio, horrek errugabe-tasuna aitortu edo epaia sendetsi arte, une horretan gai diren arduralaritza-zehaztapidetzak geldi eta erabaki gabe utziz.

## II ATALBURUA

### Norbanako jaurgopeko ogasunentzako lege-jaurpideak

**I Saila.—Norberetzakotzea**

*38garren Atala*

1. Ogasun eta eskubide guztiak Autonomia-Elkarteko norbanako-jaurgopekotarako hartzen direla ulertzen da eta, hori, gero herri-baliapide edo zerbitzutarako jartzearen, eta Autonomia-Estatutoan eta Autonomia-Elkarte osorako Era-kundegorenen eta Kondaira-Lurraldeen harremanen Legean ohartemandako ogasunak izendatzeko jaurpideen kaltetan gabe.

2. Ogasun eta eskubideak nahitaezko jabegokentzez har-tzea horretarako berarizko araupideei atxikiz egingo da, eta hoiek herriaren onerako edo gizarte-zuduzko direla aldarri-katzera eraman zituzten xedeetarako jartzea eta hoiek eratxi-kitzea berebaitan izango ditu.

*39garren Atala*

1. Ogasun eta eskubideak ondarez, ondarez gainetikako emaitzen bidez edo emari-bidez norberetzakotzeko, Jaurlari-tzak Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren saloz Dekretoz ontzat ematea beharrezkoa izango da.

2. Emaileak gozamendun izateko Lege honen 4garren atalean esandakoetako ihardutze-sail zehatz bat jarri dezana-rren, Jaurlaritzak ogasun eta eskubideak Autonomia-

3. En los mismos supuestos, las personas ligadas a la Administración de la Comunidad Autónoma, sus Organis-mos Autónomos, Entes Públicos de derecho privado y Socie-dades Públicas por una relación funcionarial, laboral, de empleo o de servicio, y que tengan a su cargo la gestión de los bienes o derechos a que se refiere esta Ley, serán sancionados con una multa equivalente al cuádruplo de los daños causa-dos, sin perjuicio de otras sanciones procedentes en aplica-ción de la legislación sobre la función pública.

4. Con independencia de estas sanciones, los causantes del daño o usurpación estarán obligados a indemnizar o resti-tuir.

*Artículo 35*

El incumplimiento del deber de colaboración impuesto en el artículo catorce de la presente Ley, será castigado con multa de diez mil a doscientas cincuenta mil pesetas, si lo realiza un funcionario público, y de diez mil a cien mil pesetas si se trata de un particular.

*Artículo 36*

La determinación del importe de los daños, la imposición de las sanciones y la exigencia de responsabilidades, se acor-dará y ejecutará en vía administrativa, previa la tramitación del correspondiente expediente en que se oirá al interesado.

*Artículo 37*

Cuando los hechos a que se refieren los artículos anterio-res pudieran ser constitutivos de delito o falta, el Departa-mento de Economía y Hacienda dará cuenta a la Jurisdicción Penal, dejando en suspenso la tramitación y resolución de los correspondientes expedientes administrativos hasta que se acuerde el sobreseimiento o se dicte sentencia firme.

## CAPITULO II

### Régimen de los bienes de dominio privado

**Sección 1.ª—Adquisición**

*Artículo 38*

1. Todos los bienes y derechos se entienden adquiridos para el dominio privado de la Comunidad Autónoma, sin perjuicio de su posterior afectación al uso o servicio público y de los regímenes de atribución de bienes previstos en el Esta-tuto de Autonomía y en la Ley de Relaciones entre las Institu-ciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Territo-rios Históricos.

2. La adquisición de bienes y derechos por expropiación forzosa se ajustará a lo prevenido en su normativa específica, y llevará implícita su afectación a los fines que hubieren deter-minado su declaración de utilidad pública o interés social, así como su adscripción.

**Artículo 39**

1. La adquisición de bienes y derechos por vía de heren-cia, legado o donación a favor de la Comunidad Autónoma, necesitará la aprobación por Decreto del Gobierno, a pro-puesta del Consejero de Economía y Hacienda.

2. La atribución de los bienes y derechos se hará por el Gobierno al Patrimonio de la Comunidad Autónoma, aun-que el disponente señalare como beneficiario a un órgano

-Elkarteko Ondareari izendatuko dizkio, eratxikipena egiterakoan gogo hori kontutan izatearen kaltetan gabe.

3. Hil ondarea, beti ere, kontu-garbitasuna aldezkoa izatearen baldintzapean onartzen dela ulertuko da.

*40garren Atala*

1. Autonomia-Elkarteari edonolako ogasunak izendatu diezaizkion ezein epailaritza nahiz arduralaritza-agintarik, hartutako erabakia Ondare-Artezkaritzari ezagutaraziko dio.

2. Artezkaritza horrek, eman zaizkion ogasunen zehaztapena eta aituen bidezko balio-neurketa egin ondoren, Autonomia-Elkartearen norbanako-jaurgopekoetan sartuko ditu.

3. Emate hori Autonomia-Elkartearekin euki eta ematen den ogasun horren balioa baino txikiagoa duen zor baten ondoriozkoa izatea gertatzen bada, ogasunaren gabe izandako zordunak ogasun horren balioaren eta zorraren zenbateko soilak, lakatze-gehigarriak, gastuek eta eskuratze-bideen gosteek, eta zorra ordaindu behar zenetik eta erabat ordaindu arte erabilgarri den lege-araupidetzan jarritako ehunekoko korrituek guztira jotzen dutenaren arteko aldea itzuli dakioneko eskubidea izango du.

*41garren Atala*

1. Autonomia-Elkarteko Arduralaritzak, horren Ihardutze-Sail Burujabeek edo Norbanako-alorreko Legepeko Herri-Izaikiek bere helburuak lortzeko beharrezko izan ditzaten eraikintzen erosketa Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuak erabakikodu, doakion Sailburuaren edo esandako Ihardutze-Erakunde eta Herri-Izaikiak arduralaritzaz haren menpeko izan daitezenekoen arioz.

2. Erosketa agiriko lehiaketaren bidez egingo da.

3. Jaurlaritzak, Ekonomia eta Herriogasun Sailburuaren eta artez doakionaren bateango saloz, lehiaketa-bideak alde batera utzi eta artezko akurapena egin dedineko baimena eman ahal izango du, hauetakoren bat gerta dedinean:

a) Erosketaren presa nabarmena.

b) Erantzun behar zaioneko beharraren berarizkoa.

c) Eraikintza-merkatuango eskaintzaren urria.

4. Aurreko zatian ohartemandakoak gerta daitezenean, ahal dedin guztietan gutxienez hiru salo eskatuko dira.

5. Erosketak arduralaritza eta ogasun-akuraketarako ohartemandako araupideen ariora egingo dira. Erosketa hauen zertzeladarik nabarmenenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

*42garren Atala*

1. Gauzazko ogasun mugikorrak diru-truke norberetzakotzea dagokien Sailburuak edo Ihardutze-Sail Burujabeen edo norbanako-alorreko legepeko Herri-Izaikien legezko ordezkariek erabakiko dute, ondoren esaten direnetan salbu, hoietan Ekainaren 30eko 7/1981 Legearen arauera esan dedin ihardutze-sailak egin beharko bait-du:

a) Erosketa, legez suzkiketatzat jo dedinean.

b) Jaurlaritzak Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren saloz sendespena egindako ogasunak izan daitezenean.

determinado de los enumerados en el artículo cuarto de esta Ley, sin perjuicio de que en su adscripción se tenga en cuenta esta voluntad.

3. La herencia se entenderá aceptada a beneficio de inventario en todo caso.

*Artículo 40*

1. Toda autoridad, judicial o administrativa, que adjudique bienes de cualquier clase a la Comunidad Autónoma, dará traslado de la resolución recaída a la Dirección de Patrimonio.

2. Esta Dirección, previa identificación de los bienes adjudicados y de su valoración pericial, incluirá los mismos en el dominio privado de la Comunidad Autónoma.

3. En el supuesto de que la adjudicación hubiera sido hecha como consecuencia de un crédito a favor de la Comunidad Autónoma de valor inferior al del bien adjudicado, el deudor al que hubiere pertenecido el bien tendrá derecho a la devolución de la diferencia existente entre el valor del bien y la suma compuesta por la adición del importe del nominal de crédito, el recargo por apremio, los gastos y costas del procedimiento para el cobro y los intereses devengados desde su exigibilidad hasta el total pago, al tipo señalado en la normativa legal aplicable.

*Artículo 41*

1. La adquisición a título oneroso de los inmuebles que la Administración de la Comunidad Autónoma, sus Organismos Autónomos o Entes Públicos de derecho privado precisen para el cumplimiento de sus fines, se acordará por el Consejero de Economía y Hacienda, a iniciativa del Consejero del Departamento interesado o del que dependan administrativamente los Organismos y Entes Públicos citados.

2. La adquisición se hará por concurso público.

3. El Gobierno, a propuesta conjunta de los Consejeros de Economía y Hacienda y del directamente interesado, podrá prescindir del procedimiento del concurso y autorizar la contratación directa, cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Reconocida urgencia de la adquisición.

b) Peculiaridad de la necesidad que debe ser satisfecha.

c) Escasez de oferta en el mercado inmobiliario.

4. En todos los supuestos previstos en el apartado anterior se solicitarán, siempre que ello sea posible, un mínimo de tres ofertas.

5. Las adquisiciones se harán según las normas previstas para la contratación administrativa y patrimonial. Las circunstancias más significativas de estas adquisiciones serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 42*

1. La adquisición a título oneroso de bienes muebles corporales se acordará por el Consejero del Departamento correspondiente o por los representantes legales de los Organismos Autónomos o Entes Públicos de derecho privado, salvo en los siguientes casos, en que competerá al órgano que se determine con arreglo a la Ley 7/1981, de 30 de junio.

a) Cuando la adquisición sea calificada legalmente como suministro.

b) Cuando consista en bienes homologados por Decreto del Gobierno, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda.

c) Autoak izan daitezenean.

2. Ogasun hoiek erosteko modua agiriko lehiaketaren bidezkoa izango da, honako hauetan artezko itune-bidez egin daitekeela:

a) Legez nahiz egitez bakarreango, salmentapeko izan daitezen ogasunak direlako, eskeintzen arteko lehia sortzeko biderik ez dagoenean.

b) Berarizko arrazoiegatik edo luza ezineko beharren hestuaren ondoriozko presa nabarmena egoteagatik, eta hori guzti hori zehaztapidetzan egiaztatu ondoren, Jaurlaritzak doakion Sailburuaren edo esandako Ihardutze-Sail Burujabe edo Herri-Izaiki hoiek haren menpe egon daitezenekoaren saloz horrela erabaki dezanean.

c) Hitzarmenaren guztizko diruegitamuak bost miloe pesetatik gora jo ez dezanean.

d) Jaurlaritzak, gai honi buruzkoan indarrean dauden legeetan babestuz, doakion Sailburuaren edo Ihardutze-Sail Burujabe edo Herri-Izaikiak hari eratxikitako Saileko Sailburuaren saloz hartutako erabakiz, zehaztapidetza isilpekoa dela adierazi dezanean.

e) Eskaintza-egilerik egon ez delako, saloak onartu ez direlako edo saltzaileari egotzi dakizkiokeen arrazoiegatik itunea sendesteko biderik izan ez denean. Horrelakoetan, Arduralaritzak lehiaketa berri baterako deia egin ahal izango du, erabaki daitezen oinarri-arauak jarrita edo, bestela, erosketa artez egin ahal izango du, bainan iragarritako lehiaketan zeuden baldintzekin heurekin.

3. Artezko itunea bidezko izan dedin guztietan, ahal dedin guztietan gutxienez hiru eskaintza eskatuko dira, erabilgarri izan dedin zatian, akurapeneango agiritasunari eta bertan eskuhartzeari buruzko araupidetza ere betez. Erosketa arauz erabaki dedin eran iragarriko da.

4. Teknolojia-interesduntzat edo informatika-ogasuntzat aldarrikatutako ogasunak erosteko, gaiari buruzko berarizko araupideek agindu dezatena egingo da eta, hori, arduralaritza eta ogasun-akurapenari buruzko arauak betetzearen kaltetan gabe.

*43garren Atala*

1. Autonomia-Elkarteko Arduralaritzari, horren Ihardutze-Erakunde Burujabeei eta Norbanako-alorreko Legepeko Herri-Izaikiei eraikintzak alogeran uztea Ekonomia eta Herriogasun-Sailak erabakiko du, artez doakion Sailburuaren edo Ihardutze-Erakunde Burujabeak eta Herri-Izaikiak haren menpeko izan daitezenekoaren arioz.

2. Ogasun mugikorrak alogeran uztea Sail bakoitzeko Sailburuak edo Ihardutze-Erakunde Burujabeen eta norbanako-alorreko legepeko herri-Izaikien legezko ordezkariek erabakiko dute, honako hauek gai izan ditzatenean salbu:

a) Ibilgailusaileko autoak.

b) Legezko sendespena duten ogasun mugikorrak.

c) Teknolojiazko interesduntzat aldarrikatutako ogasunak.

d) Informatika-ogasunak.

Horrelakoetan, agintepidea Ekainaren 30eko 1981 Legearen arauera emango da.

3. Alogeratze guztiak agiriko lehiaketaz egingo dira. Artezko itunea, ogasun-moeta bakoitzarentzat, 41garren eta 42garren Ataletan zehaztutakoetarako bidezkoa izango da, han bezala hemen ere, ahal dedin guztietan, gutxienez hiru eskaintza eskatu behar direla.

c) Cuando se trate de vehículos automóviles.

2. El procedimiento para la adquisición de estos bienes será el de concurso público, pudiendo realizarse por concierto directo en los siguientes supuestos:

a) Cuando no sea posible promover concurrencia en la oferta por versar sobre objetos sujetos a monopolio de hecho o de derecho.

b) Cuando por motivos excepcionales o por reconocida urgencia, surgida de necesidades apremiantes e inaplazables, y previa justificación de todo ello en el expediente, así lo acuerde el Gobierno, a propuesta del Consejero del Departamento interesado o al que estén adscritos los Organismos Autónomos o Entes Públicos mencionados.

c) Cuando el presupuesto total del contrato no exceda de cinco millones de pesetas.

d) Cuando el expediente haya sido declarado secreto por acuerdo del Gobierno, al amparo de la legislación vigente en la materia, a propuesta del Consejero del Departamento interesado, o al que estén adscritos los Organismos Autónomos o Entes Públicos.

e) Cuando el concurso no se haya adjudicado por falta de ofertantes o por no haberse admitido las proposiciones o cuando, por causas imputables al adjudicatario, no pudiera formalizarse el contrato. En estos casos, la Administración podrá convocar un nuevo concurso, con las bases que se acuerden o concertar directamente la adquisición, pero en las mismas condiciones que rigieron para el concurso anunciado.

3. En todos los casos en que proceda el concierto directo, se solicitarán, siempre que ello sea posible, tres ofertas como mínimo, cumpliéndose además, en la parte que sea aplicable, la normativa sobre publicidad y concurrencia en la contratación. La adjudicación se anunciará en la forma que reglamentariamente se determine.

4. En la adquisición de bienes declarados de interés tecnológico o de bienes informáticos se estará a lo que disponga la normativa específica en la materia, sin perjuicio del cumplimiento de las reglas sobre contratación administrativa y patrimonial.

*Artículo 43*

1. Los arrendamientos de bienes inmuebles a favor de la Administración de la Comunidad Autónoma, sus Organismos Autónomos y Entes Públicos de derecho privado, se acordarán por el Departamento de Economía y Hacienda, a iniciativa del Consejero del Departamento interesado o del que dependan los Organismos Autónomos y Entes Públicos.

2. Los arrendamientos de bienes muebles se acordarán por el Consejero de cada Departamento o los representantes legales de los Organismos Autónomos y Entes Públicos de derecho privado, con excepción de los que tengan por objeto:

a) Vehículos automóviles objeto del Parque Móvil.

b) Bienes muebles homologados.

c) Bienes declarados de interés tecnológico.

d) Bienes informáticos.

En estos casos la competencia se atribuirá conforme a la Ley 7/1981, de 30 de junio.

3. Todo arrendamiento se concertará mediante concurso público. Procederá el concierto directo en los mismos casos establecidos en los artículos 41 y 42 para cada clase de bienes, con idéntica obligación de solicitar, siempre que ello sea posible, un mínimo de tres ofertas.

42-2, c) atalean jarritako diru-zenbatekoa, ogasun mugikorrak artezko itunez alogeran emateko urteko bostehun mila pesetakoa izango da.

*44garren Atala*

1. Nolanahiko Baltzuak sortarazteko baimena, eta bai Euskadiko Autonomia-Elkarteko Arduralaritza hoietako partzuer-zatiak hartzekoa ere, Jaurlaritzak Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren eta enpresa arduralaritzaz haren menpeko izango deneko Saileko Sailburuaren bateango saloz emandako Dekretoz egingo da, dirua eta norbanako-jaurgopeko ogasunak eramatea erabaki dezakeela, hoien balioa dena dela.

2. Halaber, Jaurlaritzak Ihardutze-Erakunde Burujabeei eta Norbanako-alorreko Legepeko Herri-Izaikiei bakoitzak bere diruegitamuen pentzutan aurreko zatian esandako baltzuak sortzeko edo hoietako partzuer-zatiak hartzeko baimena eman ahal izango die, Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren eta Erakundegoren-Izaiki hoiek haren menpeko izan daitezen Saileko Sailburuaren saloz emandako Dekretoz.

Baltzu hoien domuarekiko eskubideen jabe-izendun Erakundegoren-Izaikiak izango dira.

3. Nolanahi ere, domuarekiko eskubide hoiek Euskadiko norbanako-jaurgopekoetakoak izango dira, Lege honen 9.4 atalean agintzen denez.

4. Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolaruauen Legeak Autonomia-Elkarteko Arduralaritza eta Erakundegoren-Izaikiak Baltzuetan sartzeko Baltzuen zermugapenerako, hoiek sortarazteko edo hoietan partzuer izateko atal honetan jartzen diren baldintzez beste batzuk eskatu ditzanean, Lege horrek agintzen duena egingo da.

*45garren Atala*

Ekonomia eta Herriogasun-Sailak, Sail berezien saloz nahiz norbere arioz, gauzazkoez besteko ogasunak diru-truke erostea erabaki ahal izango du.

**2garren Saila.—Inorentzakotzea, Uztea eta Trukea**

*46garren Atala*

Eraikintzak inorentzakotzeko, hala badagokio, doakion Sailak emandako erizpenaren ondorioz, Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuak inorentzakotzeko gai direnen adierazpena egitea beharrezkoa egingo da.

*47garren Atala*

1. Inorentzakotu dedin eraikintzak, aituen balio-neurketez jarrita, hogei miloetatik gora gabeko balioa izan dezanean inorentzakotzeko erabakia hartzea Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuari dagokio; balioa hortik gorakoa izan baino ehun miloe peseta gainditzen ez baditu, erabakia Jaurlaritzak hartu beharko du, Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren saloz, eta azkeneko esandako zenbatekotik gorakoa baldin bada, Eusko Legebiltzarraren Lege baten bidezko baimena beharko da.

2. Inorentzako modua agiriko erremate-bidezkoa izango da; balioz hamar miloe pesetatik beherakoa baldin bada, horren ordez artezko salmenta egin ahal izango da, Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren erabakiz, eta bestetan, Jaurlaritzak horren saloz hartutako erabakiz.

La cantidad señalada en el artículo 42-2, c) será de quinientas mil pesetas anuales para el arrendamiento de bienes muebles por concierto directo.

*Artículo 44*

1. La creación de Sociedades de cualquier clase, así como la adquisición de participaciones en las mismas por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, serán autorizadas por Decreto del Gobierno, a propuesta conjunta del Consejero de Economía y Hacienda y del Consejero del Departamento del que la empresa haya de depender administrativamente, pudiendo acordar la aportación de metálico y bienes de dominio privado, cualquiera que sea su valor.

2. Podrá igualmente el Gobierno autorizar a los Organismos Autónomos y Entes Públicos de derecho privado la creación o participación en las Sociedades a que se refiere el apartado anterior, con cargo a sus respectivos presupuestos, mediante Decreto a propuesta conjunta del Consejero de Economía y Hacienda y del Consejero del Departamento del que dependan los Entes Institucionales mencionados.

La titularidad de los derechos sobre el capital en estas Sociedades pertenecerá a los Entes Institucionales.

3. En cualquier caso, los derechos sobre el capital formarán parte del dominio privado de Euskadi, de acuerdo con lo establecido en el artículo 9.4 de esta Ley.

4. En los supuestos en que la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco prevea requisitos diferentes a los expresados en este artículo, para la calificación, constitución o participación en Sociedades de la Administración de la Comunidad Autónoma y de sus Entes Institucionales, se estará a lo dispuesto en la misma.

*Artículo 45*

A propuesta de los distintos Departamentos, o por iniciativa propia, el de Economía y Hacienda podrá resolver la adquisición a título oneroso de propiedades incorporales.

**Sección 2.ª—Enajenación, Cesión y Permuta**

*Artículo 46*

Para enajenar inmuebles será requisito necesario la declaración de alienabilidad dictada por el Consejero de Economía y Hacienda, previo informe del Departamento interesado, en su caso.

*Artículo 47*

1. Cuando el inmueble que se enajene tenga un valor, fijado por tasación pericial, no superior a veinte millones de pesetas, corresponde acordar la enajenación al Consejero de Economía y Hacienda; si el mencionado valor fuere mayor, sin superar los cien millones de pesetas, corresponderá al Gobierno, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda, y si es superior a esta última cifra, deberá ser autorizada por una Ley del Parlamento Vasco.

2. El procedimiento para la enajenación será el de subasta pública, que podrá ser sustituido por el de enajenación directa por resolución del Consejero de Economía y Hacienda, si el valor es inferior a diez millones de pesetas, y por el Gobierno en los demás casos, a propuesta de aquél.

*48garren Atala*

1. Gauzazko ogasun mugikorrak inorentzakotzea, hoiek erabiltzen ari zen edo hari eratxikita zeudeneko Saileko Sailburuak erabakiko du, Ihardutze-Burujabeentzat eta Norbanako-alorreko Legepeko Herri-Izaikientzat Lege honetan agindutakoaren kaltetan gabe.

Inorentzakotzea agiriko erremate-bidez egingo da.

2. Errematea egin eta han hartzailerik ez-egotea gertatu edo hautsiko balitz, artez inorentzakotzea erabaki ahal izango da.

Horrelakoetan, akurapenaren zernolakorik nabarmenenak, araupidez erabaki dedin eran aldarrikatuko dira.

3. Legez teknolojia-interesduntzat zermugatutako ogasunentzat eta informatika-ogasunentzat, hoiei buruzko berarizko araupidetan agintzen dena egingo da eta hori, arduralaritza edo ogasun-akuraketari buruzko legeek ohartematen dutena betetzearen kaltetan gabe.

*49garren Atala*

1. Gauzazkoez bestekoak inorentzakotzeko baimena Jaurlaritzak emango du, Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren saloz.

2. Baltzuetako domuekiko jabe-agiriak edo haien zor-agiriak inorentzakotzeko baimena Jaurlaritzak emango du, Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren saloz.

